# IKASTOLETAN BI ELEZ

Askotan entzun dozube "abeŕtzaletasun barik euzkerea ezta ezer". ¿Eztira gogoŕegijak itxok? Nik askotan entzun dodaz itz oŕek, baña geyenetan euzkeldunak eztiran abeŕtzalien espanetatik eta bijotzian ezpaya soŕtu ixan yat.

¡Euzkerea! ¡euzko-ele zaŕa! ¿Zer geratuten yaku gaurko euzkotaŕai, geure asabeak ixan eben ixakeratik euzkerea baño? Azkatasuna galdu, ekandu garbiak loŕu, Euzko-odola iñun ba dago abixen *euzkerazkoak* iragaŕiko dabe.

Bai, euzkerea eutsin egin biaŕ da, zelan edo alan, oldozten neban, euzko-endaren azkenengo iragaŕkija dalako.

Beŕgara'ko euzkel-egunian, leyuetan baŕa txeiguetan irakuŕiten zan "Ikastoletan euzkerea, euzkerea nai-dogu".

Otxandijon bere ikastoletako bi-elezen aldez itzaldija egin zan. Olakuak ikusi ta entzunda, neure bijotza nasaŕu zan apuŕ bat oldozturik: Bizkaya'n euzkel eŕiko auzo ikastoletan euzkerea be erabilten da, edo beintzat kistau-ikasbidea euzkeraz ikasten da, ta irakasliak euzkeldunak dira.

Baña ordutik ona ikusi dot geure auzoko ikastola baten, euzkeldun irakasle bateri etxian ikasiko, kistau ikasbideko ikaskaya aŕtzen, eta neure bijotza tamal -mingotzez bete da.

Umiak egon ziran zutunik irakasle-mayen inguruban. Lenenguak pozik, garaĺiak; bestiak iŕun luŕera begira.

Ona emen: dinost irakasliak, gauŕko ikaskaya jakin dabe eŕdeldunak (baŕa atzeŕitaŕak be) ;euzkeldunak eztabe ikasi euren euzkel-ikaskaya.

¿Zegaŕik ete...? begiratuten dodaz ume euzkeldunak. Iŕun, lotsaturik dagoz.

Onek, Campion'en Pedro Mari'ren antzez esango leukie "¡euzkerea? ezpa'neki, oba". Eŕderazko ikaskaya, eŕazagua, nik be ikasiko neban.

¿Eŕderaz eŕazago ume euzkeldunentzat?

Esango dautzubet.

Umiak ikasten dabe elia euren amaren ezpanetatik, baña ikastolara juan orduko eztakije euren bixitzan erabiĺiko dabezan itz gustijak, eun batzuk baño.

Ikastolara juanda asten da euren gogua zabaltzen.

Azikeran umiak dagoz bilduŕtuta, ixiĺik. Irakaslia, euzkelduna ixan aŕen, irakatsi gustiak egiŕen dauz eŕderaz. Noz-edo-noz, uleŕtzen ezpa-dau, egiŕen dautso euzkeraz apuŕ bat berari. Lendik ikastolara asi ziranak, nagusijak, geyen dakijenak, baŕa irakasliak be, aŕtu-emon gustijak egiŕen dabe eŕderaz.

Urte bat edo urte bi baŕu, ba-dakije eŕderaz, euzkeraz dakijen beste ume euzkeldunak.

Orduko ikasi dau irakuŕten ta idazten, eta ordubantxe azten da bat benetan, bere gogua zabaltzen, landuten, irakatsi baŕijakaz. Oŕdutik auŕera ikasten dau benetan elia... ¿ta zein ele? Atzeŕitaŕena. Eŕdel-iztija, España'ko Edestija, baŕa Ludistija be zelan? Anei bideŕ esango dau "españataŕak ixan genduzan", ezpañataŕak daukoguz"...

¡Baña ba-dago be kistau-ikasbidia euzkeraz?

Bai, baña ¿zetarako euzkeraz? ¡Ze gatxa! Itz arek berak eztauz iñoz entzun: etxian ez, kanpuan bez, eta ikastolan be. *Autoŕtu, ziñezkintza, agintzarijak, etc.*

Apuŕ bat apainduta dauko euzkerea kistau-ikasbidiak, baña umiak dakijan euzkerea, ezta landu, oŕegaŕik eztau uleŕtzen, ezin ikasi, berarentzako da aldatz gora igon eziña.

¿Zer egingo dau irakasliak, abeŕtzalia eztanak?

Bera da euzkelduna, biaŕ ba ikasiko eban euzkerea eŕazago loŕtuteko ikastolaenbat eta beragaz irabazijak... ¿Zelan, abeŕtzalia ezpada, maŕe ixango dau euzkerea?

Berari kosta jakon ikastija baŕa euren ikasliai, Gotzain agindua dala-ta euzkeraz egin biaŕagaz kostaten yake asko kistau-ikasbidia ikastia. Ostantzilan gauza guztijakaz ba duaz auŕera...

An dagoz sesiñuan eŕdeldunak auŕian, garaĺeak.

¿Zer egingo yako, diño ikasliak, euzkeraz gatxagoa ba-da? —Ba nik gura dot eŕderaz ikastia. —Baŕa neuk be... ¿Euzkerea zetarako? (1.ª)

(2.ª) Ez, abeŕtzaletasunik ezpa-dago, ez ikastoletan euzkerea. Eztaŕela uŕten ukuĺutik, etxian bakaŕik sukaldeko beroagaz, sendijen maŕasunagaz bixi daŕela.)

1.ª Oŕduban uleŕtu neban iñoz baño obeto Sabin'en negaŕ samiñak didaŕ egin ebanian "¡Il abeŕija zakigu!" Bai ama-euzkera laztana, gurago leŕeke zu ilda ikustia zure semiak onetara ezestia baño.)

Ikusiko ba'zendun zure amaren argazki zaŕa iñoren eskuetan, eta ziŕalok antziñako eraz jantziŕa egualako edo, zure amaren lepotik iŕi-baŕe egiŕen ¿ezeunke gurago argazkia eŕeta ikustia aren eskubetan baño?

Aiztu daŕela guztiz euzkerea, erabilten dabenak maŕe ezpa-dabe. "¡Il euzkerea zakigu!" "Euzko-abeŕtzalen bijotzen beruak biztuko zaŕu! **UTAŔSUS.**

1930'ko-XI-1'an.

# "NACION VASCA"

Ha llegado a nuestras manos el número de septiembre de esta publicación renacentista que Acción Nacionalista Vasca de la Argentina edita en Buenos Aires.

Como siempre, contiene trabajos de un máximo interés para la gran causa vasca y reseñas con grabados de actos verificados en diferentes puntos para la difusión de nuestro ideario.

Un nuevo y cordial saludo a tan simpática publicación.